

Mali eta Nigerreko tuaregak tiroka basamortuan

Miloi eta erdi dira Saharako tuaregak, gehienak gaur Mali eta Niger izeneko estatuen mugetan bizi direnak. Mitifikatu dituzten film eta erreportajeek fusila eskuetan azaldu dizkigute. Orain ere tiro hotsez dagite oihu, autonomia, kultura eta uranioaren sosak aldarrikatzeko.

AFRIK.COM WEBGUNEA DA kontinente horretako aktualitatea jarraitzeko leihio interesgarrietako bat, egoitza Parisen daukan arren. Berrikitan honako titularrak ageri zuten: *Qu'attendent les Touaregs des gouvernements du Mali et du Niger?* Kronikaren hasieran Maral Amiri kazetariak dienez "Maliko eta Nigerreko gobernuak etengabeko gatazkan daude tuareg jendeekin". Sahara inguruetan tiroka dabilzan matxino bakarrak ez baitira Al Kaidako islamistak.

Afrikako gerra handiek –Darfur, Kongo, Ruanda...– eragin dituzten hilotz mendiekin alderatuta, Niger eta Malin tuaregekiko gerretan hil direnak ale batzuk baizik ez dira. Hala ere, herrialde txiro horien barne orekan garrantzia dute gatazkek. Gainera, uranioa bezalako lehengaiak eta Afrikako geopolitika ere inplikaturik daude saltsa hauetan.

Miloi eta erdira ez dira iristen denetara tuaregak. Kopurua ezin da zehatz-mehatz jakin, baina horietatik 800.000 inguru bizi dira Nigerren, eta 500.000 bat Malin, gainerakoak Burkina Fason, Aljerian eta Libian. Tamasheq edo tamajaq da hitz egiten duten mintzaira. Ipar Afrikako herrialdeetan barrena 12 milioi herritar dauzkan amazigh edo berbere etniaren zati dira tuaregak.

Literaturan eta zineman sarri erretratatu diren tuaregek gerrari fama merezia dute. XX. mendean bertan, Mali eta Niger estatu gisara sortu

baino anitzez lehenago ere, agintariei oldartu zitzaizkien. 1910-1920ko errebolta haiek, ordean, gehiago zeuden lotuta, antza, mila urtez Sahara inguruko laborariekin izandako liskar etengabeekin gatazka modernoekin baino.

Aldiz, istiluek bestelako kolorea hartu zuten 1980ko hamarkadatik aurrera. Entziklopedietan Sahel eskualdeak nozitutako bi lehorre handi azpimarratzen dira: 1972-74koa eta 1984-85ekoa. Idorteko nekazariak eta abeltzainak hondoa jota utzi zituzten, basamortuak kilometro asko irabazi eta egarriak abere asko hil zituen.

Tuareg ugarik beren ohiko lurralde eta ibilbideetatik alde egin behar izan zuten, inguruko laborariegaz talka eginez. Niger eta Maliko estatuak berriz ez ziren gauza gosetearen ondorioak leundu eta herritarrei laguntza egokia bideratzeko. Lehen tuareg gerrilla modernoak Nigerren sortu zen, 1985ean, baina borroka 1990eko hamarkadan gogortu zen bi herrialdeetan.

Malin urte horietan gerra zibila ere izan zen. Geroztik tuaregek eta Bama-koko gobernuak bake hitzarmena sinatu zuten 2006an Aljerren, eta egoterrak nahiko egonkortua dirudiela zioten adituek. Baina 2007an berriro piztu dira liskarrak. Aurten, martxoaren 20tik 21erako gauean militante tuaregek 33 militar bahitu dituzte, eta

Argazki hau Interneten "Nygus" izeneko batek jarri du. Bertan ageri den emakume gaztea Nigerreko Air mendialdean auzolaneko irati emankizun batean esatari lanetan ari da. Tenere desertuko eskualde horrek sona badu Europan eta Amerikan, Saharako basamortuan abentura bila barnatu nahi duten turistaren artean. Niger, Mali eta Aljeriako estatuak eskualde honetan egiten dute muga. Hemen tuareg jendea da nagusi eta gerrilla ere indartsuena bertan da. Azken urteotan matxinoek parajeetatik erasoak ugaritu dituzte, nagusiki Maliko edo Nigerreko militarren kontra, baina baita ere tarteka Areva multinazional frantsesak hemendik ez oso urrun uranioa ateratzeko dauzkan instalazioen kontra. 2006ko bake hitzarmenean Bamako eta Niameyko gobernuak agindu zituztenak ez dituztela bete salatzen dute eraso horien egileek.

ez dago batere garbi ez non egon ote litezkeen, eta ezta loturaren bat ote dagoen tuareg horien eta Nigerreko bestelako gerrillaren artean.

Nigerren berriz, bai Air mendietara eta Agadez herrira hurbiltzen diren turistek eta bai Areva enpresarekin Arlit inguruetan uranioan ari diren langileek badakite azken urtebetetik honetan matxinoak guduan ari direla basamortuetan. Bake hitzarmenak eta hauen hausturak bata bestearen ondoren etorri dira urteotan. Eta azken hamabi hilabeteotan okerragora egin dute gauzek Nigerren.

Iazko otsailean eman zieten lehen zafraldia soldaduei Iferuane herrian: hiru hildako. Apirilean Arlit inguruan uranioa ateratzen duen Arevaren egoitzari egin zioten su. Ekainean Tizirzet-en (Agadezetik 435 kilometrorara) hurrengo erasoak: hamabost hildako eta 40 presoner. Urtarril honetan Agadez inguruan, Tanout herrian, gerrillariak hiru soldadu hil eta bertako alkatetea bahitu zuten. Kazetariak idatzi dute matxinoak 4x4etan iritsi zirela leporaino armaturik, eta Jendarmeriari egin ziotela eraso.

Uranioa eta hizkuntza

Zer eskatzen diete tuaregek Mali eta Nigerreko gobernuari? Horixe galdetu dio Maral Amiri-k *Afrik.com* aldizkari elektronikorako Abdoulahi Attayoub Europan tuaregen diasporak daukan



ordezkariari. Temoust elkarteko lehendakaria da Attayoub.

Honen iritzian, antzeko egoeretan bizi dira Mali eta Nigerreko tuaregak. “Tuaregak baztertuta daude ekonomian eta politikan. Bake akordioek beren egoera pixka bat hobetzea ekarri dute, batez ere segurtasunaren alorrean, baina oinarrizko arazoak konpondu gabe dirau”.

Attayouben ustez erroan dagoen afera da tuaregak baztertuta bizi direla Mali eta Niger estatu gisa sortu zirenetik. “Lehen errebolta egon zen 1960ko hamarkadan, eta bigarren 1990ekoan, hau askoz ezagunagoa. Bien bukaeran sinatu dira bake hitzarmenak, baina gero ez dira bete”. Orain alde batetik aldaketa politikoak eskatzen dituzte, estatuen deszentralizazioa. Bigarrenik,

beren oinpeko lurpean datzaten ondasunen emaitzetan hartu nahi dute parte, Nigerren ekoizten den uranioan bidenabar. Azkenik, kultur nortasuna ezagutu eta onartzea aldarrikatzen dute, hizkuntza eta idazkera barne.

Eta etorkizuna? “Etorkizunean—dio Attayoubek— bi herrialdeok deszentralizatuta ikusten ditut, beren eskualdeetan tuaregek ekonomia, segurtasuna eta kultura beren gain daukatela. Baina bada gauza kezkarri bat: tuaregak Sahararen erdialdean bizi dira, lur eremu oso zabalean oso jende gutxi izanez. Uranioak eta petrolioak atzerriko potentzien irrika piztu dezakete. Nigerren eta Areva multinazionalaren arteko tirabiran ikusten da jadanik. Geopolitika ere hartu behar da kontuan: Ekialde

Hurbiletik, Europatik eta Afrikatik hurbil gaude”.

Horiek badira militante tuaregen itxaropenak, Nigerreko gobernuak lortu du mugimenduon bestelako irudia zabaltzea. Mamadou Tandja presidentearentzako Nigerren ez dago gerrilla tuaregik, lapur eta trafikante bandak baizik. Gainera, gerrillarien babeslea Muammar Kadhafi libiatarra dela argudiatu du aspalditik, eta liskarrik handienak gertatu direneko zonaldeak itxiarazi ditu. Urtarrilean bi kazetari frantses atxilotu eta kondenatu zituen Niameyko gobernuak debekatutako eremuetan sartzeagatik.

Une honetan egoerak korapilatuta dirau Nigerren. Tuaregen aldetik badira alde batetik gobernuaren promesaz aspertu eta zuzeneko ekintza gogortu nahi duten militanteak, eta gehiengoak berriz nolabaiteko negoziaketa burutu nahiko luke Tandja presidentearekin, batik bat aurreko matxinadan gerrillari izan eta geroztik agintean egondako lider batzuek.

Niameyko *establishmentean* ere —kontzeptu hori erabili baldin baliteke munduko herrialderik txiroenetakoan— oso kontrako jarrerak daude. Batzuek ohartzen dira tuaregekin, hauek populazioaren %8 baizik ez izan arren, nolabaiteko konponketa batera iritsi beharra dagoela. Baina beste askok zigorra astintzea eskatzen diote Tandjari. Komunikabide batzuek berotuta, anitz herritarrek uste dute tuaregak egoistak direla. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Herrani kalea - 20054 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624